altza

Lau Haizetako bide estuak

Lau Haizeta aldean egiten ari diren obra erraldoiak direla, harrobia dela edo nekazal hustiakuntzak direla, istilu ugari sortu da azken aldi honetan. Aspaldi ikusi zen, Lau Haizeta inguruko bide estuek ezin izango zutela kamioien pisua jasan, batez ere kontutan izanik bide horien azpian dauden ur hodiak. Eta honela gertatu da, inguru hartako ur hodiak aspaldi honetan apurtzen joan dira eta bertako bizilagunek honen aurrean kezka adierazi dute. Udaletxean protesta egin dute baina arazoak hor jarraitzen du eta protestei ekin diete berriz.

Joan den astean, frantsez belarrez beteriko kamioi bat geldituta eduki zuten goizeko 7.00etatik arratsalderarte, 10 tona baino gehiago zeramatzalako. Azkenik, Ertzaintzak kamioi gidaria eta baserritarren ordezkaria adostea lortu zuen eta irtenbidea eman zioten mozketari.

Arazo honen aurrean, Bizirik Gaude elkarteko baserritarrek,12 tona baino gehiago dituzten baserritar kamioiek bideak erabiltzeko eskubide osoa dutela diote. Baserri hustiakuntzarako materiala behar-beharrezkoa delako.



Bideen inguruan sortutako istiluekin bai inguruko bizilagunek eta bai baserritarrek, guztiek jasan dituzte kalteak.

Bizirik Gaude elkarteak Udalak beren alde hartutako erabakiaren errespetua bermatzeko eskatu dio alkateari eta gertatutakoak Foru Aldundiaren eta Epaitegiaren eskuetan jarri ditu.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

herrera

Helduen Heziketa Ikastetxeak irekia du jada aurtengo ikasturterako izen emate epea. Matrikula goizeko 11.00etatik 13.00etara edo arratsaldeko 18.00etatik 20.00etara egin daiteke eta ikasturtea irailaren 23an hasiko da. Beti bezala, ikastaroen ordutegiak goizez, arratsaldez eta gauez izango dira eta heldu orori zuzenduriko ekintzak antolatuko dira.

Helduen Heziketa Ikastetxean, Lanbide Heziketako frogetarako ikasleen prestakuntza eskaintzen da, atzerritarrentzat gaztelera irakasten da, gaur egungo gaiak jorratzen dira eta aisialdirako ekintza soziokulturalak antolatzen dira.

Tailerrei dagokienez, lau hilabeteko iraupena duten informatika eta mekanografia ikastaroak eskainiko dira.

Informazio gehiago nahi izanez gero deitu 390376 telefonora.

Auzotegiak ere jarri ditu martxan aurtengo ikasturtean izango diren ikastaroak.

Aurten eskulanez gain helduentzat izango da aukera gehiago auzoan, gimnasia hain zuzen ere. Pili eta Itziar izango dira ikastaro hauen arduradunak eta izen emate epea irekia dago dagoeneko.

Haurrentzat ere ekintza ugari antolatu da aurtengoan. Musika eta marrazkia izango dira, besteren artean, haurrentzat ekintza nagusienak.

Informazio gehiago Peruene Berri behean dagoen Auzotegin jaso daiteke.

KANTU LIBURUSKA

Zure afari, bazkari, bidaia eta lagun giroetan lagunduko dizun liburuxka praktikoa

Zatoz BAGERAren bulegora (Tfnoa.: 431228)

100 pezeta bakarrik balio du!!